

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

150/2016 Foru Agindua, ekainaren 20koa, baliogabetzen duena apirilaren 19ko 166/2001 Foru Agindua, ezartzen duena Arabako Lurralde Historikoan hegazti basati mokomakurrak bizirik harrapatzeko eta edukitzeko baimena salbuespenez emateko araudia

Apirilaren 19ko 166/2001 Foru Aginduz (2011ko maiatzaren 9ko ALHAO, 52. zk.), ezarri zen Arabako Lurralde Historikoan hegazti basati mokomakurrak bizirik harrapatzeko eta edukitzeko baimena salbuespenez emateko araudia, itxian hazi eta beren kantua eta edertasuna hobetzeko asmoz; izan ere, kultura tradizio bat da Araban eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Autonomia erkidegoan, estatuan eta nazioartean ere lehiaketa eta erakustaldi ugari egiten dira, non Euskal Herriko txorizale elkarteetako eta kanariozain elkarteetako kideek hartzen duten parte.

Foru agindu hura hartu zen oinarrituta orduan indarrean zegoen natur ingurunea babes-teko araudian jasotakoan, hain zuzen: Euskal Herriko natura zaintzeari buruzko 16/1994 Legea (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak, 16/1994 Legearen testu bateratua onartzen duenak, gaurkotua); Kontseiluaren apirilaren 2ko 79/409/EEE Zuzentaraua, baso hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa (baliogabetu eta gaurkotu zuena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauak); eta martxoaren 27ko 4/1989 Legea, espazio naturalak eta basafloa eta basafauna kontserbatzearena (abenduaren 13ko 42/2007 Legea, natura ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa, baliogabetu zuena).

Ondoren, hainbat foru ebazpen eta agindu garatu ziren, harrapaketak eta baimen baldintzak egokitu edo mugatzen zituztenak Europako Batasunaren arau aldaketa eta gomendio edo iradokizun araberak, bai eta autonomia erkidegoan eta estatuan silbestismo modalitate horretaz egindako bilera tekniko araberak ere. Halaber, Arabako Foru Aldundiak bete egin ditu hegazti fringilidoak bere ingurune naturaletik ateratzeko jarraibide teknikoak egokitzeko Hegaztiei buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren 9. artikulua; izan ere, agiri hura Ingurumeneko Biltzar Sektorialak onartu baitzuen 2011ko uztailaren 13an.

Hala ere, Europako Batzordeak bere garaian 2235/11, 4022/12, 3782/12 eta 5713/13 espedienteen epatze gutuna eman zuen EU-PILOT prozeduraren bidez, non jakinarazten zen autonomia erkidegoek hegazti fringilidoak harrapatzeko erabakitako baliogabetzeek ez dituztela betetzen Hegaztiei buruzko zuzentarauaren 9(1)(c) artikuluko baldintza estuak, batez ere, "beste irtenbide egokiren baten faltan" eta "zentsuzko ustiapena neurri txikian" direla eta, "estu kontrolatutako baldintzak" eta "modu selektiboan" betetzean egindako huts handiez gainera.

Aplikaturako baldintzei, aleak harrapatu eta edukitzearen jarraipenari eta itxian hazteko gene berriak sartzeko beharizanari buruz autonomia erkidegoen eta foru aldundi honen erantzun eta txostenak gorabehera, Europako Batzordeak eman du espediente horien ondorioen jarraipena ez betetze horizontaleko prozeduraz egingo dela Espainia osoan (Asturiasen izan ezik). Biak bitartean, eman gabe dago zehapen prozedura horri buruzko erantzuna bai autonomia erkidegoen aldetik bai estatu aldetik.

Europako Batzordeko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren irizpenari atxikiz, jotzen da baliogabetu egin behar dela apirilaren 19ko 166/2001 Foru Agindua, harik eta ezagutzen diren arte irekitako zehapen prozeduraren arrazoi zehatzak eta horien eragina Euskal Autonomia Erkidegoan eta Arabako Lurralde Historikoan.

Hori dela eta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Baliogabetzea apirilaren 19ko 166/2001 Foru Agindua, ezartzen duena Arabako Lurralde Historikoan hegazti fringilidoak bizirik harrapatzeko eta edukitzeko salbuespe-
nezko baimena emateko araudia, eta horretatik sortu diren gainerako foru ebazpen eta aginduak.

BIGARRENA. Indarrean uztea Arabako hegazti fringilidoen hazleen erregistroa, non sartzen di-
ren Arabako Lurralde Historikoan hegazti fringilidoak hazten eta dauzkaten pertsonak. Erregistro
hori atxikiko zaio Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalari.

HIRUGARRENA. Foru aginduz arautuko da hegazti fringilidoak itxian edukitzea, estatu, au-
tonomia erkidego eta Europa mailako indarreko araudian xedatutakoa betez.

LAUGARRENA. Foru Agindu honen berri ematea Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lu-
rralde Politikako Sailari, jakinaren gainean egon dadin.

BOSGARRENA. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 20a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN